

“BILBAO BALIOEN HIRIA” SARIEK EZAGUTZA AGERTU DIE KIROLAREN ARLOKO PROIEKTU BATI, ARTE ESZENIKOEN ESKOLA-JAI BATI ETA GAZTE EKINTZAILEEN TOPAKETA BATI

- Irabazi asmorik gabeko entitateen kategorian, saria *Bilboko Klub Bereziak* ekimenarentzat izan da, Unión Deportiva La Merced eta Artxandako Mertxetarrak klubentzat, hain zuzen, erakustearren zelan bi klub elkarrekin bizi daitezkeen ordutegi eta leku berak partekatuz elkarren begirunez.
- Bestalde, Otxarkoaga Modern Art Festival proiektuak, zeina Otxarkoagako Lanbide Eskolak aurkeztu baitzuen, ikastetxeen saria irabazi du, gazteen gaineko estereotipoak hausten laguntzeagatik, zehazki, Otxarkoagako gazteen gainekoak.
- Entitate profesionalen sailean, saria Biscay Bay Startup Campus proiektuarentzat izan da, zeina gazte ekintzaileen topaleku bat izan baita, teknologiari buruz eta etorkizunari buruz ikuspegi sozial batekin pentsatzen duten gazte ekintzaileena.
- Aurten, halaber, bi aipamen berezi entregatu zaizkie Bilboko Udaleko funtzionario Sonia Polori eta Sabina Melchorri, ordainetan ezer espero gabe eta elkartasunez lagundu dutelako Espainiako Gerra Zibileko umezurtz bat zuzeneko ahaide batekin berrelkartzen.
- Datozen egunetan, Bilboko Udalak sari hauen edizio berri bat deituko du, hirugarren edizioa izango da eta 2020an garatutako balioetan oinarritutako proiektuei zuzenduta izango da.

(Bilbo, 2020ko azaroaren 11a).- *Bilboko Klub Bereziak* proiektua, [Unión Deportiva La Merced](#) eta [Artxandako Mertxetarrak](#) futbol taldeena, *Otxarkoaga Modern Art Festival*, [Otxarkoagako Lanbide Eskolarena](#), eta [Biscay Bay Startup Campus BBSC](#), *Start Up Campus enpresarena* izan dira 3 proiektu sariztatuak, “Bilbao Balioen Hiria” sarien bigarren edizioan, zeina Udalak sustatzen baitu [Bilboko Balioen Agiria](#) bultzatzearen.

Hiru sari horiez gain, aurten, **bi aipamen berezi** entregatuko zaizkie Sonia Polori eta Sabina Melchorri, hainbat urtean erakutsi duten sentikortasun eta lan altruistarengatik, Espainiako Gerra Zibilean, 1939an, eta bost urte zituela, gurasoak hil zitzaizkiolarik Belgikara ihes egin zuen ume bati zuzeneko ahaide bat topatzen lagundu ziotelarik.

Juan Mari Aburto Bilboko alkatea izan da gaur arratsaldean Bilboko Udaletxeko Arabiar Aretoan egin den sari-banaketaren buru. Aburtok eskerrak eta zorionak eman dizkie saritutako proiektuen sustatzaileei; "*saritutako hiru proiektuek bultzada berri bat ematen diote Bilboko Baloreen Gutunari. Bilbo bere balioengatik aitortua eta bizikidetza onaren erreferentea izateko gure asmoa lortzen laguntzen digute*". Alkateak Sonia Polo eta Sabina Melchorri ere zuzendu zaie "*egin duzuen lan desinteresatuagatik, besteei laguntzeko egin*

duzuen lanagatik", "eskuzabaltasuna, elkartasuna eta konpromiso eredugarria erakutsi duzue", gaineratu du.

SARITUTAKO PROIEKTUAK

- ✓ ***Bilboko Klub Bereziak*** proiektuak, zeina ***La Merced eta Artxandako Mertxetarrak klubena baita***, jaso du saria irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateen kategorian.

Bi klub horiek, kirol entitate bereizi gisa erregistratuak, zeinek bere zuzendaritza batzordea duela, elkarrekin jarduten dira duela 20 urte baino gehiagotik antolaketa eta funtzionamenduan, halako moldez non familiek, koordinatzaileek, entrenatzaileek eta jokalariek **espazioak eta ordutegiak partekatzen baitituzte elkarren begirunez**.

Kirolean elkarrekin bizitzeko modu hori, futboleant, hain zuzen, oso lagungarria da pertsonen garapenerako, ez bakarrik kirolaren alderditik, baita gizatasunaren alderditik ere, gizarte moderno, solidario, jasangarritasunaren zale, berdintasun zale eta inklusibo orok behar dituen balioen eremuan.

Epaimahaiak bereziki baloratu du klubak berezko dituen balioak eta jarduera [Bilboko Balioen Agiriarekin](#) lotzeko egindako lana, haien zabalkundea eginez eta haietan sakonduz, ez bakarrik futboleant jokatzen duten umeekin, baita haien familiekin ere, hartara eragin positibo bat sorraraziz, belaunaldi batzuentzat eta besteentzat, eta, aldi berean, biderkatzailea.

- ✓ ***Otxarkoagako Lanbide Eskolak*** irabazi du ikastetxeen kategoriako saria, ***Otxarkoaga Modern Art Festival*** proiektuarengatik.

Hasiera batean, ikastetxeko gazteek gogokoen zituzten arte-modalitateak landu zituzten, eta, ondoren, bideo bat grabatu zuten. Lehen fase horretan, ehunka ikaslek parte hartu zuten, eta hip hop, rap, dantza, kirola, komikiak eta abar landu zituzten.

Parte hartzaileen artean, 10 talde hautatu ziren, eta **ikastetxeko ingurumen-ikasgelan egindako jaialdi batean** eman zuten ikuskizun bat. Ikuskizun hori online ere eman zuten, eta jendetza bildu zuen, are inguruko beste ikastetxe batzuetatik etorritako ikasleak ere.

Proiektua hainbat arlotakoa eta hainbat kultura biltzen zituena zen, eta lagundu egin zuen Otxarkoagan bizi diren gazteen gaineko estereotipoak hausten, haiek gazte prestatu, elkartasunaren zale eta balioekin eta elkarbizitzarekin engaiatu moduan erakutsiz. Gainera, jaialdiaren bidez, gazteen era bateko eta besteko gaitasunak indartu ziren.

- ✓ ***Start up Campus*** ekimenak irabazi zuen enpresen, merkataritzaren, ostalaritzaren, elkargo profesionalen eta antzeko entitateen kategoriako saria, ***Biscay Bay Startup Campus*** proiektuarengatik. **BBSC**.

Bera da Estatuko gazte ekintzaileen arteko topaketarik handiena. Xedea du topaketarako gune bat eratzea, gazteei mundu hobea sortzen laguntzeko, *startup*-en bidez.

Epaimahaiak positiboki baloratu du proiektua gazteen enpresa-proiektu bat izatea, teknologiari eta etorkizunari buruz ikuspegi sozial batetik pentsatzen duena, eta hainbat ediziotan zehar Bilboko Balioen Agirian jasota dauden zenbait alderdi landu izan dituen, hala nola emakumeen lidergoa eta eragin soziala. Ekintzaile-proiektu berritzaile bat da, zer sozialarekin zerikusia duena, ez bakarrik ekonomikoarekin.

Bilbao Balioen Hiria Sarien bigarren edizio honetan, 45 proiektu aurkeztu dira guztira, 26 ekimen, irabazi asmorik gabeko elkarteek eta entitateek landuak, 6 proiektu, Bilboko ikastetxeek landuak, 13 proiektu, egoitza Bilbon duten enpresa, saltegi, ostalaritza eta elkargo profesionalek eta antzeko entitateek landuak.

2 AIPAMEN BEREZI

Bigarren edizio honetan, hiru sari horiez gain, aurtun, bi aipamen berezi entregatuko zaizkie Sonia Polori eta Sabina Melchorri, zeinak Bilboko Udalaren funtzionario baitira, hainbat urtean erakutsi duten sentikortasun eta lan altruistarengatik, Espainiako Gerra Zibilean, 1939an, eta bost urte zituela, gurasoak hil zitzaizkiolarik Belgikara ihes egindako ume bati lagundu baitzioten zuzeneko ahaide bat topatzen.

Ume hura Bartzelonatik abiatu zen Belgikara, eta han familia batek adoptatu zuen, eta bizimodu eta deitura berriak eman zizkion, baina adin hain txikian, hain beldurturik gurasoak gerran galdu osteko bakardadean eta giro nahasi hartan, amnesia bat sorrarazi zuten harengan, eta iraganeko xehetasunak oroitu ezinez utzi zuten.

Vicente du izena haur hark, eta gutunak igorri zituen Estatuko Udal handi guztietara, eta, hain zuzen, Sonia Polo eta Sabina Melchor izan ziren bakarrak, ez beste inor, gutun hura irakurri eta erabaki zutenak gizon haren alde ematea beren denbora librean.

Iker eta iker arituz eta Bartzelonara bidaia ugari egin ondoren, lortu zuten lorratz bat aurkitzea, eta hari jarraituz, azkenean, pertsona bat aurkitu zuten, eta hari DNA proba batzuk egin ondoren, ohartu ziren gerran gurasoak galdu zituen haur haren zuzeneko ahaidea zela. Lehen aldia da pertsona batek jatorrizko nortasuna berreskuratzen duena identifikazio genetikoaren bidez, Espainiako Gerra Zibilean atzerrira eraman eta amnesiaren gaitzak jo ostean.

BILBO BALIOEN HIRIA

Datozen egunetan, Bilboko Udalak sari hauen edizio berri bat deituko du, hirugarren edizioa izango da eta 2020an garatutako balioetan oinarritutako proiektuei zuzenduta izango da.

[Bilbao Balioen Hiria Sariak](#)” ekimena Bilbao Balioen Hiria proiektuaren barruan sortu zen, parte hartze bidezko ekimen bat, hain zuzen, Bilboko Udalak sustatua, baina, hasiera-hasieratik, herritarrekin elkarlanean eraikia eta garatua. Bilbao Balioen Hiriaren helburua da uria ezaguna eta aitortua izan dadila ez bakarrik ekonomiaren eta hiriaren birgaikuntza, suspertze eta eraldaketagatik, baita beraren balioengatik ere. Helburua da erakundeen, era guztietako entitateen, enpresen, hedabideen, talde politikoen eta herritarren artean analisirako, elkarrizketarako, hausnarketarako eta lankidetzarako espazio bat sortzea.

Proiektu horren emaitza moduan, 2018ko martxoan, Bilboko Udalbatzak Balioen Agiria onetsi zuen: 17 balio izendatzen dira bertan, Bilboko herritarren elkarbizitzaren ardatz izan behar dutenak eta Uria gidatu behar dutenak datozen urteetan. Hala, uztailean, Udaleko Gobernu Batzordeak Balioen Agiria garatzeko plana onartu zuen, agirian jasotako 17 balioak gauzatzeko ekintzak garatzearren.

Balioen Agiriari atxiki nahi zaizkion pertsona edo erakunde guztiek nahikoa dute inprimaki erraz bat betetzea, [Udalaren webgunean](#) edo [Bilbao Balioen Hiriaren webgunean](#) eskura daitekeena.

Agiriarekin bat egiten dutenek agiriaren edukiaren eta muinarekin bat datozen jarrerak eta jokabideak izateko eta sustatzeko konpromisoa hartzen dute. Agirian jasota daude bilbotarren ustez Uriko elkarbizitzaren ardatz izan behar duten 17 balioak: giza eskubideen errespetua, justizia soziala, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna, elkartasuna, dibertsitatea eta inklusioa, konpromisoa, ingurumen arloko jasangarritasuna, elkarbizitza, identitatea, ahalegina, erantzunkidetasun, partaidetza, konfiantza, sormena, zintzotasuna, ilusioa eta osasuna.

LOS PREMIOS “*BILBAO BALIOEN HIRIA*” RECONOCEN UN PROYECTO DEPORTIVO, UN FESTIVAL ESCOLAR DE ARTES ESCÉNICAS Y UN ENCUENTRO DE JÓVENES EMPRENDEDORES

- En la categoría de entidades sin ánimo de lucro el premio ha sido la iniciativa *Bilboko Klub Bereziak*, de los clubs de fútbol Unión Deportiva La Merced y Artxandako Mertzetarrak, por ser ejemplo de cómo dos clubs diferentes pueden convivir en espacios y horarios de manera respetuosa.
- El proyecto Otxarkoaga Modern Art Festival de la Escuela Profesional de Otxarkoaga, se ha llevado el premio de los centros escolares por su contribución a romper esteotipos sobre las y los jóvenes en general y concretamente, de Otxarkoaga.
- En el apartado para entidades profesionales el galardón ha sido para Biscay Bay Startup Campus, un encuentro de personas emprendedoras y jóvenes que piensan en la tecnología y en el futuro en clave social.
- Este año hay también dos menciones especiales a las funcionarias del Ayuntamiento de Bilbao Sonia Polo y Sabina Melchor por su contribución desinteresada y solidaria al reencuentro de un niño huérfano de la Guerra Civil española con un familiar directo.
- En los próximos días, el Ayuntamiento de Bilbao convocará una nueva edición de estos galardones, será la tercera edición para premios basados en valores desarrollados durante este 2020.

(Bilbao, 11 de noviembre de 2020).- *Bilboko Klub Bereziak*, de los clubs de fútbol [Unión Deportiva La Merced](#) y [Artxandako Mertzetarrak](#), *Otxarkoaga Modern Art Festival*, de la [Escuela Profesional de Otxarkoaga](#) y [Biscay Bay Startup Campus. BBSC](#), de [Start Up Campus](#), han sido los 3 proyectos galardonados en la segunda edición de los “Premios Bilbao Balioen Hiria 2019”, organizados por el Ayuntamiento para el impulso de la [Carta de Valores de Bilbao](#).

Además de estos tres premios, este año se han decidido **dos menciones especiales** para dos trabajadoras del Consistorio bilbaino; **Sonia Polo y Sabina Melchor** por su sensibilidad y la labor altruista que desarrollaron durante varios años y que concluyó con la localización de la familia directa de un niño que en 1939 y con la edad de 5 años emigró a Bélgica tras perder a su madre y a su padre en la Guerra Civil española.

El Alcalde de Bilbao Juan Mari Aburto ha presidido el acto de entrega de estos premios que ha tenido lugar esta tarde en el Salón Árabe del Consistorio bilbaino. Aburto ha agradecido y felicitado a las y los impulsores de los proyectos premiados su labor; “*los tres proyectos premiados suponen un nuevo impulso a la **Carta de Valores de Bilbao**. Nos ayudan y contribuyen a conseguir nuestro propósito de hacer de **Bilbao una ciudad reconocida por sus valores y referente de buena convivencia**”.* El Alcalde también se

ha dirigido a Sonia Polo y Sabina Melchor “*por vuestra labor desinteresada, por vuestro trabajo para ayudar a los demás*”, “*habéis demostrado una generosidad, una solidaridad y un compromiso ejemplar*”, ha añadido.

PROYECTOS PREMIADOS

- ✓ El proyecto ***Bilboko Klub Bereziak de U.D La Merced y Artxandako Mertzetarrak***, ha recibido el premio en la categoría de Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro.

Se trata de dos clubs, registrados como entidades deportivas únicas y diferenciadas, con juntas directivas propias, pero cuya organización y funcionamiento desde hace más de 20 años es común, de tal forma que las familias, personas coordinadoras, entrenadoras, jugadoras, **comparten espacios y horarios de manera respetuosa**.

Esa manera de convivir en el deporte, en el fútbol concretamente, contribuye al desarrollo de las personas, no solo en lo deportivo, sino también en lo humano, en el ámbito de los valores de toda sociedad moderna, solidaria, sostenible, igualitaria e inclusiva.

El jurado ha valorado especialmente el trabajo de vinculación de los valores propios de los clubs y su actividad con la [Carta de Valores de Bilbao](#), difundiendo y ahondando en los mismos, no solo con los y las niñas que juegan sino también con sus familias, generando así un impacto positivo, intergeneracional y multiplicador.

- ✓ La **Escuela Profesional de Otxarkoaga** se ha llevado el premio en la categoría de centros escolares por su proyecto ***Otxarkoaga Modern Art festival***.

En un inicio las y los jóvenes del centro trabajaron las modalidades artísticas con las que se sentían más identificados, para grabar después un vídeo. En esta primera fase participaron un centenar de alumnos y alumnas desarrollando actividades como hip hop, rap, baile, deporte, cómics, djs...

De entre los y las participantes se eligieron 10 grupos, para actuar en un **festival en el aula medioambiental del centro escolar**. Un espectáculo que se retransmitió online y que reunió a mucho público, incluido alumnado de otros centros educativos de la zona.

Este proyecto, multidisciplinar e intercultural, contribuye a romper estereotipos sobre las y los jóvenes en general y en concreto con aquellos que residen en Otxarkoaga, mostrándoles como jóvenes preparados, solidarios y comprometidos con los valores y la buena convivencia. Además, con el festival se potencian las diversas capacidades de la gente joven.

- ✓ **Start up Campus** se ha hecho con el galardón en la categoría empresas, comercios, hostelería, colegios profesionales u otras entidades análogas, por su proyecto ***Biscay Bay Startup Campus. BBSC***.

Se trata del mayor encuentro de jóvenes emprendedores del Estado. El objetivo es generar un espacio de encuentro para ayudar a las y los jóvenes a crear un mundo mejor a través de las *startups*.

El jurado ha valorado positivamente la idea de ser éste un proyecto de empresa joven que piensa en la tecnología y en el futuro en clave social y que a lo largo de las distintas ediciones ha tratado aspectos enmarcados en la [Carta de Valores de Bilbao](#) tales como el liderazgo femenino y el impacto social. Se trata de un proyecto de emprendimiento innovador vinculado a lo social y no solo a lo económico.

A esta segunda edición de los Premios Bilbao Balioen Hiria se han presentado un total de 45 proyectos, 26 iniciativas desarrolladas por asociaciones y entidades sin ánimo de lucro, 6 proyectos desarrollados por centros escolares de Bilbao y 13 proyectos desarrollados por empresas, comercios, hostelería, colegios profesionales u otras entidades análogas que estén ubicadas en Bilbao.

2 MENCIONES ESPECIALES

En esta segunda edición, hay **dos menciones especiales** para las funcionarias del Ayuntamiento de Bilbao; Sonia Polo y Sabina Melchor, por su sensibilidad y labor altruista realizada durante varios años y que concluyó con la localización de la familia directa de un niño que en 1939 y con la edad de 5 años partió hacia Bélgica tras perder a su madre y a su padre en la Guerra Civil española.

Aquel niño partió desde Barcelona hacia Bélgica, donde una familia lo adoptó, dándole una vida y unos apellidos nuevos. Su corta edad, una contusión y el miedo a la soledad tras perder a sus padres en la guerra provocaron una amnesia que le impidieron recordar los detalles de su pasado.

Vicente, que así se llama, envía varias cartas a todos los grandes Ayuntamientos del Estado, y son ellas, Sonia Polo y Sabina Melchor, las dos únicas personas que, a la lectura de su carta, deciden ayudar a este hombre en su tiempo libre.

Tras múltiples pesquisas y viajes a Barcelona logran encontrar una pista con la que consiguen finalmente localizar a una persona que, tras unas pruebas de ADN, resulta ser familia directa de aquel niño que había perdido a su familia.

Se trata de la primera identificación genética de una persona con amnesia evacuada durante la Guerra civil española que recupera su identidad "personal".

BILBAO BALIOEN HIRIA

En los próximos días, el Ayuntamiento de Bilbao convocará una nueva edición de estos galardones, será la tercera edición para premios basados en valores desarrollados durante este 2020.

Los “**Premios Bilbao Balioen Hiria Sariak**” se enmarcan en el proyecto [Bilbao Balioen Hiria](#), una iniciativa participativa, impulsada por el Ayuntamiento de Bilbao, pero construida y desarrollada, desde un principio, en colaboración de la ciudadanía. Bilbao Balioen Hiria tiene como objetivo que la Villa sea conocida y reconocida no solo por su importante proceso de regeneración, recuperación y transformación económica y urbana, sino también por sus valores. Se trata de crear un espacio de análisis, dialogo, reflexión y trabajo colaborativo entre instituciones, entidades de toda índole, empresas, medios de comunicación, grupos políticos y ciudadanía en general.

Como resultado de este proyecto en marzo de 2018 el Pleno del Ayuntamiento aprobó la Carta de Valores de Bilbao en la que se identifican los 17 valores que deben vertebrar la convivencia de la ciudadanía bilbaina y que deben guiar de la Villa en los próximos años. En esta línea, el pasado mes de julio, la Junta de Gobierno del Consistorio aprobó el Plan de Desarrollo de la Carta de Valores, para implementar acciones que materialicen los 17 valores del documento.

Toda persona o entidad que lo desee puede **adherirse a la Carta de Valores** rellenando un sencillo formulario online disponible tanto en la [página web del Consistorio](#) como en la de [Bilbao Balioen Hiria](#).

Quien se adhiera a esta Carta asume el compromiso de mantener, potenciar y promover actitudes y comportamientos acordes al espíritu y contenido de este documento, que plasma los 17 valores, que según las y los bilbainos, deben vertebrar la convivencia de la Villa, -respeto a los Derechos Humanos, justicia social, igualdad entre mujeres y hombres, solidaridad, diversidad e inclusión, compromiso, sostenibilidad medioambiental, convivencia, identidad, esfuerzo, corresponsabilidad, participación, confianza, creatividad, honestidad, ilusión y salud-.